



## **Gizalegezko Lanaren Aldeko Elizak (GLAE) 2019an prekarietatea salatzen jarraituko du.**

Egoitza Santuak, LNE (Lanaren Nazioarteko Erakundeak), eta jatorri katolikoa zuten erakundeek bultzaturik, "pertsonek guztientzako lan egokia", Garapen Iraunkorreko Helburuen artean kokatzeko asmoz sortu zen 2015ean Espainian Gizalegezko Lanaren Aldeko Elizak (GLAE).

Espainian sortutako enplegua, bost urteko susperraldi ekonomikoaren ondoren, ezegonkorra eta bazterkeriaz igurtzia dago. 2014az geroztik, izena emandako kontratuen %90 baino gehiago iraupen mugatukoak dira; eta horri, aldi baterako kontratuen aldakortasun igoera erantsiz gero, iraupenaren murrizketa, kontratuen kateatzeen ugartzea, eta baita lanaldi partzialak ere, honako egoera honetara garamatza: *Egiturazko bazterketa eta gizarteratze soziala*, FOESSA Fundazioaren azkeneko azterketak dion bezala "enplegua izatea, jada, ez da gizarteratzearen erakusle".

Egoera sozial hori larriagotu egiten da pertsona asko eta asko langabezia egoeran daudelako (3,3 milioi; %47ak urtebete baino gehiago darama langabezian), eta milioi bat baino gehiago sendi (1.052.800), kide aktibo guztiak langabezi egoeran daude (EPA, 4T 2018).

Gizalegezko Lanaren Aldeko Eliza (GLAE) ekimenak, aurten, lan-prekarietateari, familietako langileen bizitzan duen eraginari, eta baita gizarte-kohesioari berari ere lehentasuna ematen dio. Zeharka, **prekarietate lotsagarria** salatuko du, eta Frantzisko aita santuak dion bezala, honek, milioika pertsonari "lan duin eta ez edozein modutakoa" lortzea galarazten dio.

### **Maiatzaren Lehena.**

Lehenengo lan-ildoak, bigarren urtez jarraian, Maiatzaren Lehena, San Jose Eguna, eta Langileen Nazioarteko Eguna ospatzea izango da, otoitz bijiliak eginez, lanak duen zentzu sortzaileari buruzko adierazpen bat landuz, eta lan duina erdiesteko arrazoiak salatuz, bai eta ildo honetan sindikatuek deitutako jardueretan parte hartzea animatzera deituz ere.

### **Gizalegezko Lanaren Aldeko Mundu Mailako Jardunaldia.**

Bigarren ardatza, urriaren 7an, Gizalegezko Lanaren Aldeko Mundu Mailako Jardunaldiaren deialdia izango da, lan duinaren aldeko 2030 Agendaren, Garapen Iraunkorreko Helburuen, 8. helburua betetzearen garrantziaz nabarmentzeko. Giza aurrerabidearen gakoa, gosearen murrizketa, pobrezia, desberdintasunak eta guztion etxearen zaintza.

GLAEk, jarraian, bost urte daramatza jardunaldi honekin bat egiten, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearekin (LNE), munduko mugimendu sindikala eta Langile Kristauen Mundu Mugimenduarekin bat eginez; urrian zehar, sentsibilizazio- eta salaketa-keinuak eta jarduerak egiten dira herrialdeko elizbarrutietan. Era berean, beste erakunde, talde edo parroki errealitateetara hurbiltzeko ahalegina egiten du, ekimenarekin bat egin dezaten, eta abar.

**Lan mundurako bi hitzordu garrantzitsu.**

Horrez gain, GLAEk lan munduko bi hitzordu garrantzitsu aintzat hartuko ditu:

- Ekaina: Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) mendeurrena. LNErekin, GLAEk partekatzen duen joera batetik abiatutako hizketaldia: etorkizun lan duinean, funtsezkoa da pertsonen lehentasuna ematea.
- Azaroa: Espainiako Gotzainen Biltzarraren *Eliza guztiaren Lan Pastoral* dokumentuaren 25. urteurrena.